

Itoizko Koordinadora Madrilgo manifestazioan

*Urtegi handien aurkako protesta
ekitaldia egingo da gaur*

Erredakzioa / Iruñea

Urtegi handien eraikuntzaren aurka gaur Madril en egin-
go den manifestazioan parte hartuko du Itoizko Koordi-
nadorak. Itotzen eraikitzen ari diren urtegiaren erabil-
garritasuna zalantzan jarri dute herriz ere koordinadora-
ko kideek.

URTEGI HANDIEN aurkako
manifestazioa egingen da gaur
Madrilen. Manifestazioa goi-
zeko 11:30etan abiatuko da
Tirso de Molina plazatik.
Itoizko Koordinadorak bat
egin du deialdiarekin.

Urtegi handien kontra dau-
den taldeak biltzen dituen
koordinadorak deitu du
gaurko manifestazioa. Pro-
testa ekitaldia *Urtegi handi
gehiagorik ez, txikizio gehia-
gorik ez* lelopean egingo da.
Itoizko Koordinadorako kide-
en aburuz lelo horrek «eraba-
teko balioa du» Itoizko urte-
giaren kasuan. «Itoizko urte-
gia lan faraonikoa da eta bere
erabilgarritasuna hutsaren
parekoa da, eta izango da».

Gaur Uraren Nazioarteko
Eguna dela gogoraraziko
dute, era berean, manifesta-
zioa deitu dutenek. «Egun
hori ezartzeko Nazio Batuek
kontutan hartu zituzten
arrazoien guztiz kontrakoak
dira Itoiz bezalako lan han-
diak», koordinadorako kideen
aburuz.

Egun Espainiako Gober-
nuak aurrera daraman ur
politika salatuko dute gaurko
protesta ekitaldia deitu duten
taldeek. Lan handien politi-
kak, talde horien ustez,
«korrupzio administratiboa-
ren sareak ezkutatzen ditu».
Hori guztia dela eta, politika
hori salatuko dute gaur
Madrilgo kaleetan.

Landa garapena aztergai

■ *Zerainen nazioarteko topaketak egingo dira*

Erredakzioa / Donostia

ZERAINEN (Gipuzkoa) *Onda-
re eta Turismoaren Garrantzia
Landa Garapenean* jardunal-
diak egingo dira bihar hasi
eta asteazkena bitartean.

Jardunaldietan parte har-
tuko duten nazioarteko adi-
tuak Zerainen izango dira
bihar goizeko 10:00etatik
aurrera. Ondoren, 12:30-
etan, EAE Euskal Autonomia
Erkidegoko lehendakari Juan

Jose Ibarretxek emango die
hasiera ofizialki jardunaldiei.

Hiru egunetan honako gai
hauek aztertuko dituzte:
*Zeraingo ondarea eta landa-
ren garapena; Landa ingu-
ruko kultura egitasmoen
garapena; Ondarea eta turis-
moa landa garapenaren pla-
netan; Turismo, ondare eta
landa garapena: kasu jakin
batzuk; eta Landa garapena-
ren planak: kasu jakin ba-
tzuk.*

Ingurugiro saria Gasteizi

■ *Hiri Ekologikoaren saria eman berri diote*

Erredakzioa / Donostia

GASTEIZEK Hiri Ekologikoa-
ren saria jaso du. *Expansión*
egunkariak eta Arthur
Andersen enpresak antola-
tzen dute sari hori. Ingurugi-
ro gestioan Gasteizen «politi-
ka aintzindaria» aplikatzen
dela nabarmendu dute.

Ingurugiro gestio planak
aplikatzerakoan Gasteizko
herritarren iritzia kontutan
hartu dela azpimarratu dute
epaimahaiko kideek. Horrek
Gasteiz «osasuntsuago» bat
egiteko aukera eman duela
uste dute antolatzaileek.
Ostegun gauean egin ekital-
dian banatu zituzten sariak.